

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Argi dago, gure bezeroak laguntzeko sare sozialen eta telebistaren beharra izango dugula, izan ere, horien bidez lortuko dugu beraiek bilatzen duten helburua, beraien enpresa hobetzea eta bezeroak erakartzea iragarkien bitartez.

Horietako sare sozial batzuk momentuko sare sozial erabilenak izango lirateke, esate baterako, instagram, tiktok edo twitter. Aldiz, telebistari dagokionez, beste hainbat kanal erabiliko ditugu, euskal telebistaren kanal garrantzitsuenak, hala nola, ETB1, ETB2 eta Teledonosti (Donostiako enpresentzat)

Hala ere, iragarki horiek sare sozialetan eta telebistan bezeroak erakar ditzaten, ondo egin behar ditugu eta horretarako editatzeko programa eta app espezialak erabiliko ditugu: PowerDirector 365, Adobe Premiere Pro, Pinnacle Studio...

